

# Itsasbazterren babesak euskal kostaldean



Javier Belza °

Erredakzioan itzulia

## I SARRERA

Kostaldekoko guneen babesak jada garapen nabarmena du euskal itsasbazterrean. Baliabideek itsasbazterreko orlan esku hartzen dute eta tarte edo espazio zehatzetan eragiten dute. Artikulu honen helburua analisia itsas ingurunearen babesean zentratzea da. Lurralde-antolakuntzaren araudi orokorrak —Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) Lurralde Plan Sektorial eta Itsasbazterren Babesarekin (43/2003 Dekretua) edo Gune Hezeen Lurralde Plan Sektorialarekin (160/2004 dekretua) gertatzen den bezala— ingurune lurtarrari edo estuariokoi bakarrik eragiten dienez, “jolasgunea” gune zehatzetan babes espezifikoan kokaturik dago.

Bereziki euskal kostalde osoaren egoera aztertzea interesgarria da, **Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko konparaketak ezarritik**. Azken lurralde horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Arrantza Saila, gaur egun gune babestu berrien gehitzea aztertzen ari da. Beste alde batetik, 2010eko martxoan Diputatuen Kongresuak aurkeztutako Itsas Ingurunearen Babesaren Lege-proiektuak Espainiako estatuko zuzenbideari 2008/56/CE Zuzentaraua gehitzen dio, non itsas ingururako komunitate-ekintza bat ezartzen den. Arau horrek, zeinaren eremua **kostaldetik 200 miliatara iristen den, Itsas Eremu Babestuen deklarazioa** kontenplatu du, baita “Espainiako Itsas Eremu Babestuen Sarea”ren konfigurazioa ere, eremuak eta beste Natura 2000 Sarearen barneko figurak txertatuz, legedi autonomiko eta nazioarteko erakundeek babestutako espazioak hain zuzen ere. Emaitza horren arabera, egungo egoera aldagarria litzateke, esku artean duzuen artikulu hau erabilgarri bihurtuz, panoramika orokorrak gain lortutako azkenengo irudiaren ebaluazio-elementu bezala.

## 2 ITSASERTZ-ZATIAN BABESTURIKO GUNEEN PANORAMIKA

Jarraian, guztiz edo partzialki **itsas urekin erlazionaturik dauden guneetatik ibilbide bat egiten da**. Bertan, itsasoaz gain, labarrak, otalurrak, dunak edo estuarioak gehitzen dira. Nahiz eta funtsean Natura 2000 Sarean integratuta daudenak aipatzen diren, lurraldeen araudian babesturik daudenak eta nazioarteko esparrukoak ere gehitzen dira.

\*Ikus zerrenda 11. orrialdean

Zerrenda honetan babestutako figurak gainjarrita agertzen dira. Iparraldean (Lapurdin), egoera hau Babes Bereziko Eremuak (BBE) eta Garrantzi Komunitarioko Lekuak (GKL) elkartzearen ondorioz gertatzen da. Hegoaldean antzeko egoerak biltzen dira, tokian bertan eragiten duten beste figura batzuk gehituz. Era horretara kalifikatu dira BBE, GKL eta Nazioarteko Garrantzizko Hezegunea (NGH) Txingudi eta Urdaibain, azken honetan Biosfera Erreserba gehituz, nahiz eta mugatze berezituak izan. Era berean, **GKL eta BBE aldi berean ematen dira Inurritza eta Gaztelugatxeko Donien, Inurritzan azalera-gune ezberdinarekin**.

Gertatzen da aipaturiko gune guztietan Natura 2000 sarean egotea ohikoa dela, adierazitako figura bat edo beste izan dezaketelarik baina Deba-Zumaia itsasbazterreko zatiaren Babesturiko Biotopoa izan ezik, horrek ez baitu sarean parte hartzen.

**Babes-figura ageri den gainjartzea**, babesten dituen araudiaren jatorriari dagokie. Era horretan, Habitat Zuzentaraua deiturikoa (92/43/EEE Zuzentaraua), GKL kontsiderazio-irizpideak finkatzen dituena da, eta Hegaztien Zuzentaraua (79/409/CEE), aldiz, BBE kontsideratzen duena. Biotopo babestuaren figura Euskal Herriko Naturaren Kontserbazio Legean jasotzen da (16/1994 Legea). Nazioarteko Garrantzizko Hezegune hitzarmenetik edo Hezeguneen Konbentziotik eratorria da, Ramsar-en (Iran) 114 estatuk izenpetua. Azkenik, Eusko Legebiltzarrak 5/1989 Legearen bitartez, Biosferaren Erreserba aintzatesi zuen, Unescon aurretik Urdaibain ezarritako figura berretsiz, nazioarteko sarearen barnean.

## 3 ITSASOKO GUNE BABESTUAK

Ondoren ekialdetik mendebaldera, itsas guneak dituzten lekuen analisia egiten da.

### “Rochers de Biarritz: Le Bouccalot et la Roche ronde”

BBE gisa kalifikatua dago, sarbide zaileko lekua da, baina, aldi berean, aproposa itsas hegaztien harrera eta ugalketarako. 245 ha-ko eremua da eta % 80 itsas guneari dagokio; gainerakoa, aldiz, harkaitz eta uhartetxoei batez ere. 20 metroko altuera maximoa du. Miarrizko hirigunearen aurrean dago, eta haren iparraldean. Itsasertzak 2 kilometroko luzera du eta itsas barrura 1,4 kilometro zabaltzen da. 2006. urtean sailkatu zen.

Erlazioa ekialdetik mendebaldera eginez eta izendapen ofiziala, hedadura eta berezko habitata aipatuz, ondorengo da:

MAPA ZKIA	DEITURA	IRUDIA	HA	TIPOLOGIA
1 FR7200724	"L'Adour"	GKL*	2,100	Ibaikoa, estuarioa
2 FR7210077	"Barthes de L'Adour"	BBE**	15.651	Estuarioa
3 FR7200786	"La Nive"	GKL	11,010	Ibaikoa, estuarioa
4 FR7212002	"Rochers de Biarritz: Le Bouccalot et la Roche Ronde"	BBE	245	Itsasoa, itsaslabarrak
5 FR7200776	"Falaises de Saint-Jean de Luz a Biarritz"	GKL	1,353	Itsasoa, itsaslabarrak, lur gunea
6 FR7200785	"La Nivelle (estuaire, barthes et cours d'eau)"	GKL	1,450	Itsasoa, estuarioa, itsasoa
7 FR7200813	"Côte basque rocheuse et extension au large"	GKL	7,806	Itsasoa
8 FR7200775	"Domaine d'Abbadia et Corniche Basque"	GKL	571	Itsasoa, itsaslabarrak
9 FR7200774	"Baie de Chingoudy"	GKL	341	Itsasoa, estuarioa
10 FR7212013	"Estuaire de la Bidassoa et baie de Fontarabie"	BBE	9,479	Itsasoa
11 ES2120018	Txingudi-Bidasoa	GKL	122	Estuarioa
12 ES0000243	Txingudi	BBE	134	Estuarioa
13 -----	Txingudi	NGH***	103	Estuarioa
14 ES2100017	Jaizkibel	GKL	2,434	Itsaslabarrak, otalurrak
15 ES2120014	Ullia	GKL	43	Itsaslabarrak
16 ES2100010	Oriako itsasadarra	GKL	184	Estuarioa
17 ES2120009	Inurritza	GKL	82	Otalurrak, estuarioa, itsaslabarra
18 -----	Inurritzako Biotopo Babestua	BB****	51,7	Otalurrak, estuarioa, itsaslabarra
19 ES2120004	Urolako itsasadarra	GKL	103	Estuarioa
20 -----	Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko Babestutako Biotopoa	BB	4,300	Itsasoa, itsaslabarra, lur gunea
21 ES2130010	Lea ibaia	GKL	109	Ibaikoa, estuarioa
22 ES0000144	Urdaibaiko itsasadarra	BBE	3,242	Estuarioa, itsasoa, otalurrak, itsaslabarrak
23 ES2130007	Urdaibaiko itsasertzak eta padurak	GKL	1,010	Estuarioa, otalurrak, itsaslabarrak
24 -----	Urdaibai	R.BIOSFERA	22,000	Estuarioa, ibai-arroa
25 -----	Mundakako itsasadarra - Gernika	NGH	1,009	Estuarioa
26 ES2130005	Gaztelugatxeko Doniene	GKL	158	Itsasoa, itsaslabarrak
27 ES2130004	Astondoko dunak	GKL	5	Otalurrak
28 ES2130003	Barbadungo itsasadarra	GKL	49	Estuarioa

(\*) Garrantzi Komunitarioko Lekuak. Frantziako estatuan SIC (Site d'Importance Comunitaire)

(\*\*) Babes Bereziko Eremua. Frantziako estatuan ZPS (Zona de Protection Spéciale)

(\*\*\*) Nazioarteko Garrantzizko Hezegunea. Ramsarreko hitzarmena.

(\*\*\*\*) Biotopo Babestua.

Iturria: [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4975/es/contenidos/informacion/renp/es\\_bio/indice.html](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4975/es/contenidos/informacion/renp/es_bio/indice.html)

<http://natura2000.ecologie.gouv.fr/regions/departements/DEPFR615.html>

Zerrendaren egilea: Javier Belza

### “Falaises de Saint-Jean-de-Luz a Biarritz”

GKL gisa kalifikatuta dago. Batik bat flysch gaineko itsaslabarrek, 50 metroko altituderainoko otalurrek eta 1.353 ha dituen azalera osoaren % 35 suposatzen duen itsasertzek osatua dago. Donibane Lohizuneko badiatik bertatik Angeluko muineko altuera arte zabaltzen da, non barne hartzen ez dituen bi gunea dituen. Horietariko bat Miarritze inguruko hondartza-gunea da, eta bestea, “Rochers de Biarritz” zatia hartzen duena, 2006an sailkatua. Itsasertzak 1,3 metroko zabalera eta gutxi gorabehera 15 metroko luzera du, aipaturiko bi etenaldiekin. Azalera, berriz, 400 ha-koa da.

### “La Nivelle (Estuaire, Barthes et cours d'eau)”

GKL honen zatirik handiena Ugaranako ur-lasterrarekin eta haren ibaiadarrekin bat dator, eta horiez gain, estuarioa eta kanpoaldeko itsasertzeko gunea ere badauzka. 1.450 ha-ko azalera osoaren % 14 itsasoko jabetza publikoko guneei dagokie, itsasertzeko gunea % 10 dela esan daitekeelarik. Donibaneko badia hau, Sokoatik Sainte Barbe muturreraino zabaltzen da, eta hori horrela izanik, mugakide da hirigunearrekin. Sailkapena 2002koa da.

### “Cote basque rocheuse et extension au large”

7.806 ha-ko GKL hau osorik itsasertze-gunean zabaltzen da eta itsas barruraino jarraitzen du, GKL “Falaises de Saint-Jean-de Luz a Biarritz” eta “Domaine d'Abbadia et Corniche Basque” GKL arte; azken hori, 2008an izan zen proposatua. 53 metroko sakonera du eta kostatik 8,5 kilometrora dago. Bi sektoretan banatzen da, erdian Donibaneko badiari elkarzut zaion kilometro bateko zabalera duen eremua utziz.

Gune honetako habitat ezberdinen aberastasuna eta duen fauna nabarmentzen dira. Harenberezitasuna substratu harritsuan dago, iparraldera 200 kilometro baino gehiagora zabaltzen den tarte hondartsuaren ondoren aurki daitekeena. Algek 50 metrorainoko sakonera hartzen dute, non Britainia bezalako beste guneeetan har dezaketen baino sakonera handiagoa den. Sektore honek estuario garrantzitsuekin duen gertutasunak atsedean eta ibaira bideratzen diren arrain-hazkuntza migra-tzaileen egokitzapena ematen den gunea sortzen dute. Algek hartzen duten sakonera du. Laute dortoka (*Dermochelys coriacea*), mular izurdea (*Tursiops truncatus*), ohiko mazopa (*Phocoena phocoena*) eta ohiko kalderoia (*Globicephala melas*) aurki ditzakegu bertan.



Irudia: Ander Rodriguez Korta

### “Domaine d’Abbadia et Corniche Basque”

GKL honek 571 ha ditu eta Hendaiaiko hondartzaren ekialdeko muga eta Sokoa bitartean kokatzen da, aurreko gunearen lurrarekiko gertuen duen zatia estaliz. Itsaslabar eta uhartetxodun gune harritsuak da, non goialdean itsasoarekiko 70 metroko altuera duten itsasertzeko otalurrak dituen. Itsas urek azaleraren %40 suposatzen dute, kostatik 600-1000 metro barrura sartzen den eremuarekin. GKL gisa 1.999an proposatu zen.

### “Baie de Chingoudy”

GKL honek 341 ha ditu eta aurrekoarekin Mendebalde aldera jarraipena osatzen du, Hendaian Estatu Espainiarreko urekin muga osotuz. Migrazioarako gune garrantzitsu eta uretako hegaztien neguko aterpe da. Azaleraren %55a itsasoari dagokio, %40a estuarioari; padura gunerik ere badu. 1.999an sailkatu zen.

### “Estuaire de la Bidassoa et badie de Fontarbie”

9.479 ha dituen BBE bat da eta aurreko GKLrekin gainjartzen da. Berezitasun gisa, bere zabalera itsasaldera handitzen du, eta horrela, itsas barrura 10 kilometro barneratzen da, lurreko erreferentzia den Higer lurmuturretik Abbadiaren mendebalde arte okupatuz. Haren azalera handiena (% 91) itsas giroari dagokio, beste guztia estuarioa, padura eta hondartzak izanik. Itsas mailatik 5 m-tara dago eta 2006an sailkatu zen.

### Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko Babestutako Biotopoa

EAEko legedian jasotzen den figuretako bat babestutako eremua da, ez baita Natura 2000 Sare barnean kokatzen. 4.300 ha ditu, eta horietatik 3.756 ha itsasertzeko guneari dagokio; 49 ha itsastar-lurtar domeinu publikoari (*dominio público marítimo terrestre*) eta gainerakoa lurralde-guneari. 8 kilometrotan zehar hedatzen da, Debako hondartza eta Zumaiaiko Haitzabal hondartza bitartean. Ondare geologiko (itsasertzeko zabal-gune eta itsaslabarra) eta faunistikoa izateagatik nabarmentzen da. Azken hori batik bat itsasoan. 2009koa da (34/2009 Dekretua), Errekurtso Naturalen Antolakuntza Plana bezala (33/2009 Dekretua).


Itsas inguruari dagokionez, Babestutako Biotopo honen sektore nagusiari hain zuzen ere, zati bat Nukleo Gune izeneko eremuan integratzen da, sektore hauskor eta baliagarritzat hartutakoa, itsaslabar eta itsas zabalgunera 10 metroko sakonerara zabalduz. Biotopo Babestuaren gainerako espazioa, lur- eta itsaso-eremua, Indargabetze Gune gisa ezagutzen da. Itsasaldeko muga, “barnealdeko urak” deitzen da, eta haren eskumena EAEri dagokio; leku horretan kokaturik dago gehienez 4 kilometroko distantziara eta kosta-lerrotik 3,5 kilometrotara.

Biotopo Babestuaren orientazio nagusia balio geologikoak gordetzea izaki, haren helburuen barnean biodibertsitatea eta lurraldearen erabilera iraunkorra daude. Zentzu horretan, itsas eremuari dagokienez, beste sektoreetara bideratzeko estrapozazio posible baten kudeaketa-eredu gisa planteatzen da, erregulazioa usadiozko eta olgetarako arrantzarako jarduera mantentzera bideratuz. Horrela, bada, azpimarratuko da indarrean dagoen araudiaren zainketa, arrantza-aparailuen mugaketa eta bi guneen finkapena, Erreserba Gunearen barnean biak, mota guztietako arrantza-jarduerak debekatuz. Bi gune hauek kostaldeko 1,9 kilometro batzen dute eta kostatik itsasaldera 700 metroko distantziara barneratzen dira.

### Urdaibaiko itsasadarra

Honako hau 3.242 ha dituen BBE bat da. Estuarioaren barrualdea eta Gaztelugatxetik Ogoñoiko lurmuturreraino doan itsasertza barneratzen ditu. Urdaibaiko Biosfera Erreserba mendebaldetik harago zabaltzen da (Gaztelugatxe barne-ratuz, zeina Biotopo Babestua ere baden) eta itsaso aldera itsas urak gehituz. BBE honek habitat- eta espezie-aniztasun kopuru handia du, funtsean estuarioari lotuta, baina, itsas giroan, itsaslabarrek, hareatza garrantzitsuek eta Izaro irlak onura egiten diote. Kobazulo eta erlaitzek itsas hegaztien komunitate ugaltzailea erakartzen dute; bertan, zango horidun kaiok (*Larus cachinnas*), mottodun ubarroia (*Phalacrocorax aristotelis*) eta ohiko ekaitz-txorria (*Hydrobates pelagicus*) nabarmentzen dira.

Itsas eremuari dagokionez, 15 kilometro inguruko luzera du eta itsasadarraren bokalean 2,3 km-ko gehienezko zabalera, Izaro irla eta beste uhartetxo batzuk ditu. Ohiko zabalera 700-900 metrokoa da, nabarmen jaitsiz Gaztelugatxetik gertuen dagoen sektorean.



Irudia: Ander Rodriguez Korta

### Gaztelugatxeko Doniene Babestutako Biotopoa

158 ha-ko Babestutako Biotopoa da; Bakio herriaren eta Matxitxakoko lurmuturraren artean kokatua, zonalde horretan gainjartzen da Gernikako itsasadarraren BBerekin. Barneratzen ditu Gaztelugatxe Donieneko tonboloa eta Aketze irla, higidura-arkuaren (arkiak eta kurbak) ondorioz sortutako eraketa oparoak, baita *Armeria enskadiensis* euskal endemismoa sortzen den itsaslabarra ere. Fauna ornitologiko gisa Aketza irlako populazioak nabarmentzen dira 200 ohiko ekaitz-txori bikoterekin, mottodun ubarroi, hanka horidun kaio eta uso basatiekin. Lur-eremuan zabaltzen den babeseko aldiri-gunea dauka.

Haren itsas eremua 3,8 kilometroo luzeran zabaltzen da, zabalerak aldakorak izanik 500-700 metro eta 100-300 metro bitartean, gunearen arabera. Mugak bat datoz sakontasuneko 6,7 metroko lerroarekin (4 besaldi), uhartetxoaren eremua gaindituz.

Tamaina handiko algak barnean hartzen ditu, *Laminarias* edo *Saccorbizas* bezala, eta lupiak, paneka handiak, txitxarroak, itsas aingirak eta itsa sugeak ere. Sakontasun txikiagoan, kabuxak, karraspioak, eta juliak aurki daitezke, olagarroa, lanperna, txamar eta txangurruez gain.

1998an aditzera eman zen (229/1998 Dekretua), itsasontzizko arrantza, urpeko arrantza eta ehiza debekatuz. Itsaski-arrantza harentolerantziaren edo aldizkako debekua konturatu gertatzen da.

### 4 ONDORIOAK

- Itsasertzeko eremu babestu gehiena estuarioei dagokie, marearteko guneak nabarietan izaki, itsas uren intrusioaren guneak ibai guneetan gisa. Horrela, itsasadar eta estuario gehienak, bai Iparraldean baita Hegoaldean ere, babesturik daude. Mota honetako guneen babeserik EAEko Gune Hezeen Lurralde Plan Sektorialean islatzen da, non zerranda hau beste leku batzuetara hedatzen den.

- *Dunadun guneek ordezkapen handia dute* gure kostaldean, eta batik bat Hegoaldean, duten presentzia murriztua dela-eta.

- *Itsaslabarrek ordezkapen handia dute, nabiz eta Hegoaldean*

*esanguratsuen kostari zatiak babes-figuratik at geratzen diren.* Hala ere, EAEko Lurralde Plan Sektorialak eta Itsasertzaren Babesak emandako estaldurak nabarmen handitzen du itsasoaren ur-ertzaren barneko mugatik gutxienez 500 metroko zabalerari dagokion gunearen antolamendua. Aipatu behar da itsasaldearen antolamendurako estatuko araudia, non bere helburua nabarmenki haundiagoa den, baina bi estatuetan itsastar-lurtar domeinu publikoa zaintzen du.

- *Ezberdintasun eta eskasia handienak itsas urretan ageri dira.*

Iparraldean lur-eremuaren mugako itsas ur babestuak zati handiak hartzen baditu ere, Hegoaldean zati puntualak mugatzen da, hala nola Deba-Zumaia, Urdaibai itsasertza eta Gaztelugatxe; aipaturiko azken biak bakarrik daude Natura 2000 sarean.

- *Itsas eremuaren ordenaziorako irizpideak ezberdinak dira.* Iparraldean bateratze-irizpide handiago bat erabili da itsasoko eta lurreko habitaten artean, Natura 2000ko tokien definizioari begira, nabarmenki elkarrekin erlazioz dauden elementuak txertatuz. Modu horretan babesten dira ia 1,5 kilometroko itsasertz-zatiak, lurreko eta trantsizioko sektoreak barnean dituzten espazioak bereganatuz. Sarearen handitzeak itsas espazioen txertaketa ekarri du, jarraitutasuna ematen kokatzen direnak eta luzerako korridore jarrai bat sortzen duena, 8-10 kilometro itsas barnera handituz.

- *Hegoaldean GKL-en mugaketa itsasertz-mugan gelditu da,* espazio berdina izan beharko litzatekeena artifizialki zatikatuz. Horren azalpentzat itsas inguruneari buruzko informazio-gabezia hartu izan da, nahiz eta, bestalde, oso koherentea ez izan, batez ere ez kautelazko neurririk, ez inpaktu-indargetze zintarik moduko babesik ezarri ez delako. Arestian aipatutako Biotopo Babestuan eta BBE-n soilik jarraitu zaio irizpide bateratzaileago bati. Beraien artean, Gaztelugatxek eta Urdaibai itsas zinta estu samarrak barneratzen dituzte, eta soilik Deba-Zumaia Biotopo Babestuak aurkezten du, 4 kilometro zabalerako itsasertz-zatia beregan hartuz, nabarmenki itsas uren babespen-borondatea, eta lur-ingurunearekiko integrazioa.

- Etortzeke den itsas espazio babestuen definizioak emango ditu nabarmendutako gabezien inguruan jarraitu beharreko lerroak.



° Javier Belza ekonomialaria da eta lurralde- eta ingurumen-aholkularia da.